

## Euskal AEko industria-jarduera % 10,9 hazi da 2022ko otsailean


**2022ko lehen bi hilabeteen metatuan, industria-produkzioaren indizeak % 9,2ko hazkunde metatua izan du**

Eustatek landutako datuen arabera, 2022ko otsailean Euskal AEko industria-produkzioa 2021eko hilabete berean baino % 10,9 handiagoa izan da, lan-egutegiko termino homogeneoetan.

Urtaroen eragina zuzendu ondoren, 2022ko otsaila aurreko hilabetearekin alderatuz gero, Euskal AEko industria-produkzioak % 0,7ko igoera izan du,

### Euskal AEko Industria-produkzioaren indizearen urte- arteko aldakuntza-tasa (%)

Jaiegunen eraginetatik zuzendua



Iturria: Eustat. Industria-produkzioaren indizea

2022ko otsaileko indizeak 2021eko otsailekoarekin alderatuta izan duen bilakaera positiboa izan da industria-sektore handi guztietan. *Ekipo-ondasunek* (ibilgailu motordunen fabrikazioa, tren-makinen eta trenbide-materialen eraikuntza eta aireontzi eta itsasontzien eraikuntza barnean hartuta) % 19,6ko igoera izan dute aurreko urteko otsailarekin alderatuta, eta *Energiak*, berriz, % 11,9ko igoera. Sektorerik horretan, energia elektrikoaren produkzioa eta hornidura eta petrolioaren fintzea sartzen dira.

*Kontsumo-ondasunek* % 12,1eko igoera izan dute oro har. Zehazki, igoera hori % 13,4ra iritsi da *Kontsumo ez-iraunkorreko ondasunen* kasuan, eta % 7,3ra *Kontsumo iraunkorreko ondasunen* kasuan. *Kontsumo ez-iraunkorreko ondasunen* epigrafean, elikagaiak prozesatu eta kontserbatzeko, garbiketa- eta higiene-produktuak fabrikatzeko eta jantziak egiteko jarduerak biltzen dira. *Kontsumo iraunkorreko ondasunen* sektorean, berriz, altzarien fabrikazioa eta etxeko aparatuen sartzen dira, besteak beste.

*Bitarteko ondasunen* kasuan (metalurgia-jarduerak, produktu metalikoen fabrikazioa, industria kimikoa eta kautxuzko eta plastikozko produktuen fabrikazioa), % 5,0ko igoera izan da urtetik urtera.

## Euskal AEko Industria produkzioaren indizea lurralde historikoaren eta ondasunen helburu ekonomikoaren arabera. Aldakuntza-tasak (p). Otsaila 2022

|                                                    | Egutegi eraginak zuzendutako datuak |              | Datu desestacionalizatuak |
|----------------------------------------------------|-------------------------------------|--------------|---------------------------|
|                                                    | m / m-12                            | Am / A(m-12) | m / m-1                   |
| INDIZE OROKORRA                                    |                                     |              |                           |
| Euskal AE                                          | 10,9                                | 9,2          | 0,7                       |
| Araba/Álava                                        | 7,1                                 | 8,0          | -1,9                      |
| Bizkaia                                            | 9,4                                 | 8,8          | 1,3                       |
| Gipuzkoa                                           | 14,8                                | 10,3         | 1,7                       |
| ONDASUNEN HELBURU EKONOMIKOAREN ARABERAKO INDIZEAK |                                     |              |                           |
| Kontsumo-ondasunak                                 | 12,1                                | 10,5         | 1,6                       |
| Kontsumoondasun iraunkorrak                        | 7,3                                 | 4,1          | 2,4                       |
| Kontsumoondasun ez-iraunkorrak                     | 13,4                                | 12,2         | 1,4                       |
| Ekipo-ondasunak                                    | 19,6                                | 15,7         | 2,4                       |
| Bitarteko ondasunak                                | 5,0                                 | 3,8          | 0,3                       |
| Energia                                            | 11,9                                | 13,3         | -2,0                      |

(p)Behinbehineko datuak

m/m12 Azken hileko (m) aldakuntza-tasa, aurreko urteko hil beraren (m-12) aldean

Am / A(m-12) Urte arteko aldakuntza-tasa, urtarritetik behatutako azken hileraren arteko metatutako aldiaren (Am), aurreko urtean pilatutako aldi beraren (A(m-12)) aldean

m / m-1 Azken hileko (m) aldakuntza-tasa, aurreko hilaren (m-1) aldean

Data 2022ko Apirilaren 5a

Iturria: Eustat. Industria-produkzioaren indizea

Desagregazio handiagoko maila batean, Euskal AEko industrian pisurik handiena duten sektoreen artean 2022ko otsailean urtetik urterako igoerarik handiena izan dutenak honako hauek izan dira: *Makineria eta ekipoa* (% 23,4ko igoera), *Garraio-materiala* (% 17,0ko igoera) eta *Energia elektrikoa, gasa eta lurrina* (% 16,8ko igoera). Bestalde, produkzioan behera egin duen sektore bakarra *Zura, papera eta arte grafikoak* izenekoak izan da, eta % 0,6ko beherakada izan du.

## Euskal AEko Industria produkzioaren indizea. Sektore A38 nagusiak (1). Urte arteko hazkunde-tasa (p). Otsaila 2022

|                                      | m / m-12 |
|--------------------------------------|----------|
| Elkadura ind., edariak, tabakoa      | 7.1      |
| Zurgintza, papera eta arte grafikoak | -0.6     |
| Kautxua eta plastikoak               | 4.5      |
| Metalurgia eta produktu metalikoak   | 9.5      |
| Materiala eta tresna elektrikoak     | 3.7      |
| Makineria eta tresneria              | 23.4     |
| Garraio-materiala                    | 17.0     |
| Energia elektrikoa, gasa eta lurruna | 16.8     |

(p)Behinbehineko datuak

Egutegi eraginak zuzendutako datuak

(1)Euskal Aeiko industrian pisurik handiena duten sektoreak

Data 2022ko Apirilaren 5a

Iturria: Eustat. Industria-produkzioaren indizea

Industria-produkzioaren indizeak otsailean izan duen urtetik urterako bilakaera positiboa izan da hiru lurralde historikoetan: Gipuzkoan, igoera % 14,8ra iritsi da, Bizkaian % 9,4ra, eta Araban, berriz, % 7,1era.

### INFORMAZIO OHARRA

Eustatek eskerrak eman nahi dizkie informazioa biltzen lagundu duten establezimendu guztiei. Haiei esker, otsaileko indizea laginaren % **93,03ko** estaldurarekin kalkulatu da.

#### Informazio gehiagorako:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia kalea, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Prentsa-zerbitzua: [servicioprensa@eustat.eus](mailto:servicioprensa@eustat.eus) Tel.: 945 01 75 62